

HITZ BITAN

FERIA. Hogei laborari inguruk eraman zituzten euren produktuak azokara



ANGELA MEJIAS

Idokiren etxe mozkinen feria Baionan

Gaur, Gure Irratiak, Baionako Gau Eskolak eta Ikastolak antolatu Sagardo Egunaren aurrerapengisa; Idoki Euskal Herriko Etxe Ekoizpenen elkar-teak, atzo, etxeko mozkinen merkaturia antolatu zuen. Elkar-teak udan pasatzen den jendearentzat egiten ditu feriak. Ekitaldi honekin, baina, bertako biztanleei begira antolatu zuten feria. Hitzordu

horretan, hogeit bat laborarik beren janari goxoa eskaintzen zuten: ogia, eztia, ardi gasna, sagardoa, eta beste hainbat mozkin... Horrez gain, ekitaldi bereziak eskaini zituzten hurbiltzen ziren jendei. Ardi mozteak, gasna ekoizpenak, erleen bi-ziaren aurkezpenak... denak zuzenean ikus zitezkeen.

HERRI KOMUNIKABIDEAK

'Artzape' herri aldizkariaren lehen alea aurkeztu dute Getarian

Ainara Argoitia | DONOSTIA

Artzape herri aldizkariaren lehen alea kaleratu berri dute, Getarian (Gipuzkoa). Aldizkariaren helburua herriko berriak lantzea dela azaldu zion atzo Jon Illarramendi *Artzape*ko zuzendariak EGUNKARIARI. Era berean, herritarren artean euskaraz irakurtzeko ohitura ere bultzatu nahi dute. Aldizkaria doan banatuko dute.

«Helduek euskara jakin arren euskaraz irakurtzeko zailtasunak dituzte, eta guk euskaraz irakurtzera ohitu nahi ditugu», adierazi zuen Illarramendik. Testu gehientsuenak batuaz izango dira, «batu zuzen baina sinple batean herritarrek ulertzeko zailtasunik izan ez dezaten». Hala ere, iritzia eta herri inkesta Getariako euskararen izango direla zehaztu zuen.

Hamar kideko kazetari talde batek kaleratu du lehen alea,

Gure Txeru kultur elkartearen babesarekin. Bi izango dira, ordea, aldizkariaren eguneroko lana egingo duten lagunak.

Guztira, 28 orri izango ditu *Artzape* eta, oraingoz bi hilabete behin kaleratuko bada ere, gerora hilabetekari izatea nahi dute arduradunek. Edukiari dagokionez, ez omen da egun kaleratzen diren tokian tokiko aldizkariengandik oso bestelakoa izango. «Elkarriketa, erreportaia, iritzia, inkestak, Getariko berri laburrak zein luzeagoak izango ditu gureak, oro har beste herri aldizkariaren egitura bera izango du. *Artzape*ko, hori bai, arrantzari eskainitako orri bat izango du», zehaztu zuen Illarramendik.

Aldizkariaren 700 ale inguru banatu zituzten atzo arratsaldean Getariako enparantzan. Bigarren alea eta hortik aurrerako guztiak, ostera, gutunontzian jasoko dituzte getariarrek.

INGURUMENA

Hiru lagun kateatu dira Barakaldoko udaletxean, Ibarreta-Zuloko hezegunearen alde

Ibarreta-Zuloko hezegunearen aldeko Ezpitsua plataformako hiru kide Barakaldoko udaletxeko altzarietan kateatu ziren, atzo, inguru horretan egiten ari diren eraikuntza lanak bertan behera utzi ditzatela eskatzeko. Ekimen berean beste hogeit lagunek parte hartu zuten, eta horiek eraikuntza lanen kontrako idatziak banatu zizkieten jende-ari. Horrez gain, atzo goizean Ertzaintzak bi lagun atxilotu zituen eraikuntza lanetan erabiltzen ari diren eskabadora batean kateatzeagatik. Ertzaintzak, horrela, Ezpitsuako 24 kide atxilotu ditu, azken bost egune-tan.

Manifestazioa egingo dute Esan, urtegia handitzeko proiektuaren kontra

Aragoi Ibaia elkar-teak manifestazioa egingo du bihar, Esan (Nafarroa), urtegia handitzeko proiektuaren eta eraikuntza lanen kontra. Manifestazioaren ondotik, martxa bat egingo dute urtegiko hormara. Bestetik, Espainiako Gobernuak 1.520 milioi pezetako partida onartu zuen atzo, eraikuntza lanek jarrai dezaten.



ANGELA MEJIAS

Baiona eta Kubako ordezkariak, atzoko ekitaldian.

TXOKOLATEA

Baionako Txokolatearen Egunetan, Kuba omendu dute

Atzo eta gaurko txokolatearen egunak kari, Baionak Kuba ohartu nahi izan du aurten. Izan ere, duela zortzi urte sortu txokolatearen akademiak Kubako enbaxadoreari medaila eskaini dio. Bestalde, Maurice Bernard zine ekoizlea omendu dute. Florence Delay idazle baionesari herriak berak eman dio medaila.

INGURUMENA

Nafarroako Cidacos ibaia hautatu du EBk uraren ekonomiari buruzko azterketa baterako

Europako Batasunak Tafallatik pasatzen den Cidacos ibaia hautatu du, uraren gestio ekonomikoari buruzko azterketa bat egiteko. Azterketa horrek emaitzak EBko estatu kideek uraren erabilpena eta gestioa era egokian egin dezaten erabiliko dira. Uraren erabilpen ekonomikoaren inguruan Nafarroa «herri aurreratuenen» artean dagoela uste dute EBko adituek, eta horregatik hautatu dute, hain zuzen ere, Cidacos ibaia. Europako Batasunaren azterketa hori, Nafarroan egiteaz gain, Ingalaterran ere egingo dute.

EUSKARA

Euskararen Eguna ospatuko dute gaur Erronkarin

Erronkariko Euskararen Eguna ospatuko dute gaur Erronkari herrian, Nafarroan euskara ofizial egitearen alde egin duten kultur astearren barruan. Kebeneko kultur taldeak, Euskara Zerbitzuak eta bailarako AEKk antolatu dute jaieguna, eta hainbat ekitaldi egingo dituzte egun osoan zehar.

XII HERRI KANTA JAIALDIA

HONDARRIBIA Gipuzkoa Plazan

goizeko 11,30etan

2001eko maiatzaren 27a